

2003ko LAN EGITASMOA

- :: Milioi bat euro baino gehiago Euskal Herriaren identitatea sendotzeko
- :: *Más de un millón de euros para fortalecer la identidad de Euskal Herria*
- :: Plus d'un million d'euros pour renforcer l'identité d'Euskal Herria

2003ko ABERRI EGUNA

- :: Apirilaren 20ean, Endaiako Udaletxearen ondoan, *Euskalzaleen Biltzarra* gogoratzuz
- :: *El 20 de abril, junto al Ayuntamiento de Hendaia, en memoria de Euskalzaleen Biltzarra*
- :: Le 20 avril à coté de la Mairie d'Hendaye en memoire d'i *Euskalzaleen Biltzarra*

HURBILTZEN Programa

- :: Euskal Herriko udalen arteko senidetze programa euskal hiritarren mesederako
- :: *Programa de hermanamientos entre municipios de Euskal Herria al servicio de los ciudadanos vascos*
- :: Programme de jumelage entre communes d'Euskal Herria, au service des citoyens basques

EGUNKARI BAT EUSKARAZ

- :: Euskarazko egunkari bat behar dugu, gure hizkuntzaren normalizazioaren alde. *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera ozenki salatzen dugu
- :: *Necesitamos un periódico en euskera, en favor de la normalización de nuestra lengua. Denunciamos firmemente el cierre de Euskaldunon Egunkaria*
- :: Nous avons besoin d'un journal en basque, en faveur de la normalisation de notre langue. Nous dénonçons la fermeture du journal *Euskaldunon Egunkaria*

ABERRI
EGUNA
2003



UDALBILTZA[®]ren AGURRA

Ongi etorriak UDALBILTZA[®] Berriak aldizkarira.

UDALBILTZA[®], 1999ko irailaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian, hau da, gure sorreraren egunean adierazi genuen bezala, udal izaerako lehen euskal erakunde nazionala da, eta ondorioz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behera, Nafarroa Garaia eta Zuberoako udal hautetsiek biltzen ditu. Euskal Herriaren garapen osokoa eta orekatua eragitea du helburu, egungo muga eta hesi politiko-administratiboen gainetik. Lurraldeetako beste erakunde eta eragile sozio-ekonomikoekin batera, euskara, kultura, kirola, lurralde antolamendua eta garapen ekonomiko soziala indarberritu nahi ditu Euskal Herriko lurralde denetan.

Herri bat gara, eta hiritar guztien eskubideak eta askatasuna errespetatuz, euskaldunen arteko harremanak indartu eta estutu nahi dutugu; elkar ezagutu, elkar lanean aritzeko; azken batean, denok jakin dezagun herri baten partaide garela. Euskal Herriaren partaide, alegia.

UDALBILTZA[®]k, printzipio zeharo demokratikoetan soilik oinarritzen du bere ekimena, euskal hiritar guztien eskubideen erabateko errespetoan eta horregatik, bete betean, gaitzestu du helburu politikoak lortzeko erabiltzen den indarkeria oro. Ez du onartzen inork indarrez ezarritako askatasunik, ez eta ere derrigorrez ezarritako marko mugiezirik. Euskal hiritarrek askatasunean agertutako borondatea da bere jokabidearen ardatz.

Euskal Herriak gaur egun bizi duen egoeraren aurrean, inoiz baino gehiago, gure konpromezu tinkoa berretsi nahi dugu distentsioa, elkarrizketa, negoziaketa eta akordioaren alde, hori bait da Euskal Herriak dituen arazo nagusiak konpontzeko bide bakarra.

Zuzendaritza Batzordea



Joan den martxoaren 26ean, UDALBILTZA[®]ren Zuzendaritza Batzordeak gure Erakundearen 2003ko Lan Egitasmoa onartu zuen. Guztira 1.052.124 euro Euskal Herriaren nortasuna sendotze bidean jartzeko.

Azkeneko hiru urte hauetan zehar, UDALBILTZA[®]ren barne azpiegitura sortu egin dugu. Onezkero, bi pertsona ditugu teknikari lanetan. Bestalde, bi egoitza martxan jarri ditugu, nagusiena Iruñean, eta bestea Donostian. Aldi berean, gure WEBgunea martxan dago jada.

Zalantzarik gabe, azken urteetan izan den era berean, gure lan politikoaz aparte, 2003. urtean *Euskal Herria Sendotzen* izeneko atala da, diru eta esfortzu gehien jasoko duena. Atal honetan euskararen garapena, hezkuntza, kultura eta kirola ditugu helburu nagusi bezala.

EUSKARA

Euskara, gure hizkuntza, Euskal Herriko nortasunaren ezaugarri nagusia da. Denok dakigu Euskal Herriko eremu batzuetan zer nolako politika kaltegarria garatzen ari diren agintari batzuk gure hizkuntzaren kontra. Politika horiek behin baino gehiagotan salatu egin izan dugu,

besteak beste, gure hizkuntza denon babesa eta laguntza behar duela azpimarratuz, euskara denona bait da. Gurea eta baita ere, Europa eta mundu osoaren ondare eta altxor kulturala.

Bainan salaketa ez da nahikoa. Horregatik, UDALBILTZA[®]ren eginkizun nagusienak euskara laguntzako ekimenetan kokatzen dira. Euskara da hezkuntza, komunikabideak, kultura eta kirola atalen ildo berezia. UDALBILTZA[®]ren ekimen nagusienak gure hizkuntza egoera ahulenean aurkitzen den lurraldeetan laguntzea da. Nafarroan eta Iparraldean, hain zuzen ere.

Alde batetik, nafarren hizkuntz eskubideak defendatzeko *Euskara Kultur Elkargoaren* lana laguntzen dugu. Ezinbestekoa iruditzen zaigu gure hizkuntzaren kontra hartzen diren erabakiak auzitegietan salatzea. Eta esan genezake momentuz elkargo honek oso emaitza onuragarriak lortu izan dituela.

HEZKUNTZA

Hezkuntza arloan, Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei laguntzen diegu. Nafarroan, ikastolen sarea sendotu eta garatzeko. Iparraldeari dagokionez, Donibane Garaziko eta Hasparneko

ikastolak eraiki, handitu eta berritzeko. Unibersitateari dagokionez, Udako Euskal Unibersitatearekin (UEU) harremanak izan ditugu, Iparraldean dituzten ekimenak sendotzeko eta udako ikastaroak egiten jarraitzen ahal izateko.

Haurren aisialdiak euskaraz egiteko zenbait elkarteei ere lagunduko diegu. Sortzen ikasbatuaz Nafarroan eta Uda-Leku, Ikas-Bi eta eskola katolikoen sarea Iparraldean. Haurtzaindegiak euskaraz gure babesa eskeintzea baita ere da gure helburuetariko bat.

Komunikabiden arloan, UDALBILTZA[®]k euskerazko komunikabideak laguntzen ditu Nafarroan eta Iparraldean baita ere. Irratiak, aldizkariak eta haurrentzako publikazio didaktikoak gure arreta berezia ere jasoko dute, orain arte bezala.

KIROLA ETA KULTURA

Kirolari dagokionez, euskal selekzioen defentsan arituz gain, Euskal Herri osoko dimentsioa duten kirol ekimenei gure laguntza eskeiniko diegu. Adibidez, pilota arloan Euskal Herriko klubak arteko txapelketa antolatuko.

Herri bezala indarra eta arnasa hartzea beharrezkoa zaigu gaur, zalantzarik gabe. Gaurkotasanari erantzun. Bainan gure historia ahaztu gabe. Horregatik, UDALBILTZA[®] esfortzu berezi bat egiten ari da Santxo III Handiaren erregearen figura oroitzeko. 2004. urtean bere koroatzearen milurtea ospatuko dugu. Hori dela eta, Nafarroako Erresumaren errege eta *Euskaldunen Errege* bezala ezagutua izan zen oroimenez monumentu bat eraikiko dugu Hondarribian, Higer itsasmuturraren gainean. Halaber, kantata bat konposatuko da, historia entsaio liburu bat, antzaeslan bat, pastoral bat eta gure errege honen dokumentu ofizialen bilduma.

□ PLAN DE TRABAJO 2003:

FORTALECER LA IDENTIDAD DE EUSKAL HERRIA

Al margen de nuestra actividad política diaria en favor de la normalización de Euskal Herria tomando como base el respeto de todos los derechos para todas las personas, así como de la puesta en marcha de nuestra infraestructura interna, UDALBILTZA® pone todo su empeño en desarrollar proyectos y actividades tendentes a fortalecer las señas de identidad de Euskal Herria.

Sin lugar a dudas, nuestra acción en favor de nuestra lengua, el euskera, constituye una de las bases fundamentales de nuestro quehacer. Especialmente, en aquellos herrialdes donde la situación del euskera es más débil e, incluso, está sufriendo un acoso claramente denunciado.

Así, seguiremos prestando nuestra ayuda en la defensa de los derechos lingüísticos de los ciudadanos vascos. En el ámbito de la

enseñanza, UDALBILTZA® continuará prestando, entre otras cosas, especial atención al desarrollo de las ikastolas en Iparralde y Navarra. Igualmente, la atención y ayuda a los medios de comunicación en euskera es esencial.

En el capítulo del deporte, centramos nuestra actividad en el desarrollo de actuaciones que toman como dimensión al conjunto de Euskal Herria. Así, cabe destacar el Campeonato de Clubes de Pelota de Euskal Herria.

En cultura, el año 2004 celebramos el milenio de la coronación del rey de los Vascos, Sancho III El Mayor. Erigiremos un monumento en Hondarribia, se comprondrán una cantata y una pastoral, se elaborará un ensayo histórico, se recopilarán los documentos oficiales de su reinado y se escribirá una obra de teatro.

PLAN DE TRAVAIL 2003 : □

RENFORCER L'IDENTITE D'EUSKAL HERRIA

Dans un contexte de consolidation de notre structure (www.udalbiltzainfo.com), d'engagement réitéré en faveur de la normalisation d'Euskal Herria. UDALBILTZA® développe son activité en vue de renforcer l'identité d'Euskal Herria, dans le respect des droits des personnes.

Sans aucune doute, nos activités en faveur de la défense de notre langue, l'euskera, constitue un des fondements principaux de notre travail. En particulier, dans les territoires basques où la situation de celle-ci est très critique, avec parfois des attaques incompréhensibles.

Ainsi, nous sommes en train de défendre les droits linguistiques des citoyens basques. Dans le domaine de l'enseignement, UDALBILTZA®, entre autre, continue son action en faveur du développement des ikastolas en Iparralde et en Navarre. De même, l'aide aux médias en basque nous paraît essentiel.

Dans le domaine du sport, nos activités se dirigent vers des projets qui seront à l'échelle d'Euskal Herria. Ainsi, nous tenons à souligner notre appui au Championnat de Pelote des Clubs d'Euskal Herria.

Dans le domaine de la culture, en 2004 nous fêterons le millénaire du couronnement du roi des Basques, Sacho IIIème Le Grand. Nous allons ériger un monument à Hondarribia, composer un chant et une pastorale, élaborer un essai historique, recopier les documents officiels de son règne et écrire une œuvre théâtrale, afin de lui rendre hommage.

2003 Lan Egitasmoa

Gastuak

Arloa

Zenbatekoa

1. Pertsonalgoa	82.940 €
2. Barne antolakuntza:	94.704 €
2.1. Lokalak eta materialak	33.319 €
2.2. WEBgunea	1.100 €
2.3. Informazio Boletina	30.000 €
2.4. Bilerak eta Batzarrak	25.000 €
2.5. Administrazioa	5.285 €
3. Euskal Herria Sendotzen	582.600 €
3.1. Euskara	51.600 €
3.2. Irakaskuntza euskaraz	287.000 €
3.3. Kultura eta Kirola	114.000 €
3.4. Komunikabideak euskaraz	90.000 €
4. HURBILTZEN	150.500 €
5. Erreserba	141.380 €
GUZTIRA	1.052.124 €

Sarrerak

1. Erakundeak	450.759 €
2. Udalak	267.580 €
3. Metatua 2002	333.785 €
GUZTIRA	1.052.124 €

□ Apirilaren 20ean, UDALBILTZA®k elkarte hau sortu zen etxe aurrean egingo du bere ekitaldia

ABERRI EGUNA 2003:

ENDAIAN, *EUSKALZALEEN BILTZARRA* OROIMENEAN



1901. urtean Endaian sortutako Euskalzaleen Biltzarra-ren plaka oroigarria
Placa conmemorativa de la creación en 1901 en Hendaia de "Euskalzaleen Biltzarra"



1901 eta 1902an, Endaian eta Hondarribian, orduko zazpi lurraldeetako idazle eta euskalzaleak bildu ziren eskararen ortografia aztertzeko: Orduan sortu zen *Euskalzaleen Biltzarra*.

Hizkuntza eta kultura soilean mugaturik egon bazen ere, Euskal Herriaren lurraldetasunari dagokionez, zinez aitzindari bat izan da *Euskalzaleen Biltzarra*, Ipar eta Hegoko lurraldeetako euskaldunak bildu baitzituen lehen aldikotz eta elkar lanean jarri. Aberri Egunean, ekitaldi bat ospatuz Endaiako Udaletxe zaharrean dagoen oroimen plakaren aurrean. *Euskalzaleen Biltzarrak* euskalgintzan egiten saiatu zena, UDALBILTZA®k egin nahi baitu herrigintzan, Euskadiko udalerrri guztien arteko lokarriak finkatuz.

Nola sortu zen *Euskalzaleen Biltzarra*? Antón Abbadiak XIXgarren mende erditik goiti antolatu zituen *Lore Jokoak* (poesia lehiaketak) eta *Euskal Jaiak* Ipar eta Hego Euskal Herriko udalerrri askotan: Urruña, Sara, Elizondo, Durango, Donosita, Azpeitia eta abar. Idazle, euskalariak eta euskaltzaleak hasi ziren elkar ezagutzen. Horrela sortu zen elkarrekin euskal

ortografia aztertzeko ideia. Denbora berean Arturo Kanpionek ere sortu zuen Nafarroan *Euskara* elkarte famatua. Bizkaiak emango zituen bi bultzatzaile indartsu: Resurrección Maria de Azkue eta Sabino Arana Goiri. Azken hau, naiz eta "euskaldun berri" izan, indar handi bat ekarriko du euskararen arlo honetan. Kontzientzia eta ikuspegi berri batekin aipatuko du Sabino Aranak euskararen betebeharra euskal gizartearen.

Pertsona horiek eta beste batzu bildu ziren *Euskalzaleen Biltzarra* sortzeko. Elkartearen buru bezala Adema kanonigoa (*Zaldubi* ez izenez abesti anitz konposatu zituen, *Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun* kantu famatua tartean dagoelarik). Lehendakari orde bezala Arturo Kanpion eta Sabino Arana Goiri izendatu zituzten. Buruzagitzan ziren ere R. M. Azkue, Guerra, Broussain, Guilbeau eta Arbelbide.

Naiz eta bere momentuan buruan zuten helburua ez lortu, esan dezakegu elkarte honen ildotik *Euskaltzaindia* sortu zela. Dena den, *Euskalzaleen Biltzarrak* bere bidea jarraitu zuen, eta beti Ipar eta Hegoaldeko

euskaltzaleak agertu izan dira bertara, Euskal Herri baten ideia mantenduz.

Orain, UDALBILTZA®k udalerrien eta euskal hirritaren artean lokarriak eta harremanak sortzen saiatzen da Euskal Herriko lurraldetasuna gida buru duelarik. Hori berretsiko dugu Aberri Eguneko ospakizunean, Endaiako oroit plaka aurrean: orduan hasi ziren bideari jarraituz, sekula baino sendoago.

□ IKURRIÑA, JAI-GIROA ETA MEZU POLITIKOA

Aberri Egunean ohi duen bezala, UDALBILTZA®k bere manifestu politokoa irakurriko du, Euskal Herriak bizi duen egoeraren hausnarketa bat eginez. Halaber, gure ekitaldian parte hartuz aparte, Euskal Herriko alkate guztiei beraien Udaletxeetan eta hiritarrei beraien etxeko balkoietan ikurriña jar dezaten eskatuko die. Azken batean, Aberri Eguna jai-giro batetan ospatu dezaten, naiz eta askotan egoera nahi bezalako ona ez izan.

□ Izar la ikurriña en ayuntamientos y balcones y ambiente festivo

ABERRI EGUNA 2003: EN HENDAIA, RECORDANDO A *EUSKALZALEEN BILTZARRA*


Como es costumbre, UDALBILTZA® celebrará el próximo 20 de abril la festividad del Aberri Eguna. Esta vez, en Hendaia, al lado del Ayuntamiento de esta localidad, delante de la placa que conmemora la creación y nacimiento en 1901 de *Euskalzaleen Biltzarra*.

Esta asociación, cuyo segundo encuentro fue organizado en Hondarribia en 1902, surgió a raíz de la organización a partir de mediados del siglo XIX por parte del insigne euskaltzale y hombre de ciencia Antton Abbadie de los *Lore Jokoak* y de las *Euskal Jaiak* en localidades como Urruña, Sara, Elizondo, Durango, Donosita o Azpeitia. En esos eventos se juntaban escritores y euskaltzales, que decidieron crear *Euskalzaleen Biltzarra* al objeto de analizar la ortografía del euskara. Era la primera vez que una asociación reunía a euskaldunes de

Iparalde y Hegoalde, dando testimonio de la territorialidad de Euskal Herria.

El canónigo Adema fue nombrado Presidente de la asociación mientras que sus vicepresidentes fueron Arturo Kanpion y Sabino Arana Goiri. Los euskaltzales R. M. De Azkue, Guerra, Broussain, Guilbeau y Arbelbide fueron otras personalidades participantes.

En cierta manera, se puede afirmar que *Euskalzaleen Biltzarra*, fue el germen de lo que luego sería la creación de Euskaltzaindia. Centrado en el euskera y en la cultura, testimonio de territorialidad de Euskal Herria. Del mismo modo que UDALBILTZA®, con el objetivo de estrechar las relaciones entre los ciudadanos y municipios de los siete herrialdes, es igualmente una evidencia de Euskal Herria.



□ Mettre l'ikurriña dans les Mairies et sur les balcons pour une ambiance festive

ABERRI EGUNA 2003: À HENDAYE, EN MEMOIRE DE *EUSKALZALEEN BILTZARRA*

Comme à l'accoutumée, UDALBILTZA® va célébrer le 20 avril prochain, l'Aberri Eguna, à Hendaye, près de la Mairie, devant la plaque commémorant la création de *Euskalzaleen Biltzarra*.

La deuxième rencontre de cette association fut organisée à Hondarribia en 1902. Cette structure a vu le jour, suite à l'organisation dès le milieu du XIXème, des *Lore Jokoak* et *Euskal Jaiak*, par l'éminent euskaltzale et scientifique Antton Abbadie, dans des localités telles que Urrugne, Sare, Elizondo, Durango, Donostia ou Azpeitia. De nombreux euskaltzale et personnalités de la culture basque assistèrent à ces fêtes. Quelques années plus tard, la création de *Euskalzaleen Biltzarra* fut décidée, avec pour objectif, l'analyse de l'orthographe de la langue basque. C'était la première fois que des personnalités d'Iparalde et d'Hegoalde, attachées à la culture basque

et à l'euskara se réunissaient, témoins dès cette époque de la territorialité d'Euskal Herria.

Le chanoine Adema fut nommé président de l'association, Arturo Kanpion et Sabino Arana Goiri, vice-présidents. D'autres personnalités comme R. M. de Azkue, Guerra, Broussain, Guilbeau et Arbelbide intégrèrent également l'association.

Euskalzaleen Biltzarra fut en quelque sorte, le précurseur d'Euskaltzaindia, en raison de ses objectifs et de son domaine d'action: la langue et la culture basque. Elle démontra, déjà à l'époque, l'existence de la territorialité d'Euskal Herria. De même, 'UDALBILTZA®, dont l'objectif est le renforcement des liens entre les municipalités et les citoyens des sept territoires basques, démontre la même évidence: la réalité d'Euskal Herria.

Euskal Herriko Udaletzek bultzatzaileak, euskal hiritarrok protagonistak

HURBILTZEN: NAZIO ERAIKUNTZARAKO ELKAR LANEAN

UDALBILTZA®k, udaletxe eta udal hautetsiek biltzen dituen udal izaerako lehen erakunde nazionalak, HURBILTZEN egitasmoa martxan jarri du, euskal hiritarren harremanak bultzatzeko asmoz. Euskal Herriko hogeitaz hamar udalerrri parte hartzen ari dira jadanik lankidetzaren proiektu pilotuetan.



Euskal Herria aberatsa eta zabala da. Herrialde bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina oinarri bereizgarri, amankomun eta aberasgarri bera dugu. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Beherea eta Xiberoko euskaldunok herri bat gara eta gizarte batu bat osatzeko eskubidea daukagu.

HURBILTZEN ekimena Euskal Herriko udalerrien arteko senidetze akordioak bultzatzen duen egitasmoa da. Euskal udalerrri eta hiritarrek harremanetan jartzea du helburu, elkar ezagutu eta maitatzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkarren arteko balioak eta asmoak partekatuz.

Beste era batera esanda, urratsez-urrats gure elkarrekotasun harremanak, herri berekoak garelako sentimendua, garatu eta aberastea. Izaera irekia eta parte-hartzailearen bidez. Europako integrazio prozesuarekin bat eginez, mugak alde batera utziz eta elkartasun loturak eta elkarren arteko ezagutzan oinarrituz.

Senidetze akordioetan lurraldeetako gizarte eta ekonomi eragileekiko lankidetzan egiten ari dira, eta euskararen, kulturaren, kirolaren

eta lurralde antolamenduaren sustapena eta Euskal Herriko herrialde guztietako gizarte eta ekonomiaren garapena dute ardatz.

SENIDETZE AKORDIOEN FILOSOFIA

2002ko urriaz geroztik lankidetzaren proiektu esperimental batzuk abiatu dira. Horietan Euskal Herriko hogeitaz hamar udalerririk parte hartzen dute. Eredu moduan erabil daitezkeen ekintzak antolatu nahi dira, egitasmo hau Euskal Herriko udalerririk guztietara zabaltzeko.

Hirunakako senidetzeak bultzatzen ditugu: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana egiten dutenak. Nolanahi ere, hiritarrek dira protagonista nagusiak, beren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Senidetze edo lankidetzaren batzordeak sortzen ari dira. Haietan parte hartzaile dira alkateak, zinegotziak eta kultur elkarte, ikastetxe, gizarte talde, kirol talde, garapen agentzia eta

abarretako ordezkariak.

Orobat, interesen kartak onesten ari dira, lankidetzaren gaiak zehazteko. Gehien errepikatzen direnak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artesautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bertzea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egon da.

UDALBILTZA®k, finantziario laguntza batez gain, aholkularitza profesionala eskaintzen die udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, bertze diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

ABIAN DAUDEN SENIDETZE AKORDIOAK

Honako hauek dira, HURBILTZEN egitarauaren barruan lankidetzaren proiektuetan ari diren udalerririk, beren biztanle kopurua eta guzti: Artea (653), Asteasu (1.215), Ataun (1.556), Azkaine (2.652), Azpeitia (13.606), Bakio (1.800), Beasain (12.144), Deba (5.105), Getxo (83.553), Heleta (589), Kanbo (4.123), Lazkao (4.886), Lekunberri (861), Lesaka (2.666), Muskiz (6.578), Oion (2.400), Ordizia (9.132) eta Sara (2.056). Badaude bertze udalerririk batzuk Hurbiltzen egitasmoan parte hartu nahi dutenak, baina oraindik ez dira taldeka lanean hasi: Bertizarana (651), Ituren (465), Lapuebla de Labarca (878), Milafranga (1.572), Mungia (13.800), Sunbilla (693) eta Urruña (8.000).

Lankidetzaren proiektu pilotuak martxan

Deba-Kanbo

Artea-Heleta-Lekunberri

Lesaka-Azkaine-Oion

Iparralde-Getxo-Goierri (Beasain, Ordizia, Lazkao)


Ataun-Sara

Asteasu-Bakio

Azpeitia-Muskiz

Los ayuntamientos de Euskal Herria como impulsores, l@s ciudadan@s vasc@s como protagonistas

HURBILTZEN: HERMANAMIENTOS ENTRE MUNICIPIOS DE EUSKAL HERRIA



UDALBILTZA[®], ha puesto en marcha el programa HURBILTZEN, con el fin de fortalecer los lazos de unión entre l@s ciudadan@s vasc@s. Una veintena de municipios de Euskal Herria, participan ya en proyectos piloto de colaboración y hermanamiento.

Euskal Herria es rica y plural. Sus territorios tienen unas características propias y también comunes a todas ellas, forjadas por siglos de historia. Uno de los objetivos principales de UDALBILTZA[®] es el de desarrollar una Euskal Herria con lazos cada vez más estrechos entre sus ciudadan@s y territorios.

Hermanamientos entre los municipios de Euskal Herria cuyo objetivo es poner en relación a los municipios y a l@s ciudadan@s, al objeto de conocernos mejor, apreciarnos, colaborar y compartir valores y proyectos que tenemos en común. En un espíritu abierto y participativo. En un enfoque plenamente coherente con el proceso de integración europea, suprimiendo fronteras

y construyendo lazos de solidaridad y conocimiento mutuo.

Se trabaja en varios proyectos de colaboración experimentales, en los que están participando una veintena larga de ayuntamientos de todos los territorios vascos. Se está procurando que en cada grupo participen, al menos, un municipio de la Comunidad Autónoma Vasca, uno de la Comunidad Foral de Navarra y otro de Iparralde. Los acuerdos de colaboración son liderados por los ayuntamientos, que cumplen una función impulsora y mediadora. Pero son l@s ciudadan@s, a través de diferentes asociaciones y grupos (culturales, sociales, deportivos, etc.), quienes protagonizan el hermanamiento.

Los temas que más se repiten en los grupos de hermanamiento son: el euskara, la educación, la juventud, la tercera edad, la gestión municipal, el deporte, el turismo, el ocio, la gastronomía, los productos artesanos, la música, la danza, la pintura y la artesanía. Cada municipio elige las

áreas y los proyectos de colaboración en función de sus necesidades, sus intereses y su voluntad.

UDALBILTZA[®] ofrece a los todos los ayuntamientos participantes financiación y asesoría profesional.

En este momento, participan en el programa HURBILTZEN con grupos ya formados en los que se están poniendo en marcha proyectos de trabajo en común, los ayuntamientos de: Artea (653), Asteasu (1.215), Ataun (1.556), Azkaine (2.652), Azpeitia (13.606), Bakio (1.800), Beasain (12.144), Deba (5.105), Getxo (83.553), Heleta (589), Kanbo (4.123), Lazkao (4.886), Lekunberri (861), Lesaka (2.666), Muskiz (6.578), Oion (2.400), Ordizia (9.132) y Sara (2.056).

Hay otros ayuntamientos que están dispuestos a participar, pero todavía no han comenzado a trabajar en grupo. En este caso se encuentran: Bertizarana (651), Ituren (465), Lapuebla de Labarca (878), Milafranga (1.572), Mungia (13.800), Sunbilla (693) y Urruña (6.098).

Les Communes d'Euskal Herria encouragent, les citoyens protagonistes

HURBILTZEN: JUMELAGE ENTRE COMMUNES D'EUSKAL HERRIA

UDALBILTZA[®] a mis en œuvre l'initiative HURBILTZEN, programme de jumelage entre les communes d'Euskal Herria afin de créer des liens entre les Basques. Une vingtaine de municipalités participe d'ores et déjà à des projets de jumelage pilote.

Euskal Herria est riche et pluriel. Ses territoires ont des caractéristiques propres et aussi communs à tous, certains à travers des siècles d'histoire. Un des objectifs d'UDALBILTZA[®] est de développer un Euskal Herria avec des liens à chaque fois plus étroits entre ses citoyens et ses territoires.

Les jumelages entre les communes d'Euskal Herria ont pour objectif de mieux nous connaître, nous apprécier, collaborer et partager des valeurs et des projets communs. Dans un esprit de respect, d'ouverture et de participation. Cette démarche pleinement

cohérente avec le processus d'intégration européenne, supprimant les frontières et construisant des liens de solidarité et de connaissance mutuelle.

Le travail est déjà amorcé grâce à des projets-pilote initiés par une vingtaine de municipalités basques. Le principe est que dans chaque groupe participent une commune d'Iparralde, une de la Communauté Autonome Basque et une autre de Navarre. Les accords de jumelage sont décidés par les communes, mais les citoyens sont directement impliqués à travers les associations culturelles, sociales, sportives, etc.

Les sujets classiques compris dans les accords de jumelage sont : la langue basque, le tourisme, l'économie, le temps libre, la gastronomie, l'agriculture, l'artisanat, la danse, etc. Chaque commune décide des sujets de

collaboration à traiter, en fonction de leurs besoins, de leurs intérêts et leurs volontés. UDALBILTZA[®] offre à toutes les communes une aide financière et une assistance technique professionnelle.

Actuellement, les communes participant à HURBILTZEN sont : Artea (653), Asteasu (1.215), Ataun (1.556), Ascaïn (2.652), Azpeitia (13.606), Bakio (1.800), Beasain (12.144), Deba (5.105), Getxo (83.553), Heleta (589), Camboles-Bains (4.123), Lazkao (4.886), Lekunberri (861), Lesaka (2.666), Muskiz (6.578), Oion (2.400), Ordizia (9.132) et Sare (2.056).

De même, d'autres municipalités ont manifesté le souhait de participer activement à HURBILTZEN : Bertizarana (651), Ituren (465), Lapuebla de Labarca (878), Milafranga (1.572), Mungia (13.800), Sunbilla (693) et Urruñe (6.098).

□ UDALBILTZA®K EUSKARAZKO EGUNKARIA BULTZATZEKO KONPROMEZUA AZALTZEN DU



UDALBILTZA®k, pertsona guztien oinarrizko eskubideen defentsa sutua oinarri harturik, *EUSKALDUNON EGUNKARIA*ren itxierak eta hainbat erakundetan joan den otsailaren 22an egin ziren sarrera bortitz eta miaketek adierazpen askatasunari, informazio askatasunari hala nola euskarari eta gure kulturari eragin duten erasoak salatzen du.

Ekimen guzti hauek azpian duten asmo politikoa salatzen dugu eta, era berean, azpimarratu nahi dugu bakea, askatasuna eta Euskal Herri osoaren garapenaren aldeko apustua berresten dugula, betiere pertsona guztien giza eskubideak defendatuz, tortura eta tratu txarrak ozenki salatuz eta distentsioa, elkarrizketa eta negoziaketa bultzatuz. Guzti honen ondorioz, UDALBILTZA®k bere konpromezua puntu hauen inguruan zehazten du:

□ COMPROMISO POR IMPULSAR LA CREACIÓN DE UN PERIÓDICO EN EUSKERA

UDALBILTZA®, desde el reiterado e inequívoco compromiso con la defensa de los derechos fundamentales de todas las personas, denuncia la vulneración de la libertad de expresión y de la libertad de información, así como el ataque que ha supuesto para el euskera y para nuestra cultura el cierre del diario *EUSKALDUNON EGUNKARIA* y la entrada y registro de otras entidades.

Estas actuaciones tienen una clara intencionalidad política. Es por ello que UDALBILTZA® reitera su compromiso en favor de la paz, la libertad y el desarrollo del Pueblo Vasco, sobre las bases de respeto de todos los Derechos Humanos, contra la tortura y los malos tratos, la imprescindible distensión, el diálogo y la negociación.

Consecuentemente, UDALBILTZA® contribuirá a impulsar la creación de un nuevo diario y prensa en euskera, en el caso de que el injusto cierre de *EUSKALDUNON EGUNKARIA* se perpetúe.

- *EUSKALDUNON EGUNKARIA* berriro ere irekitzen baldin badute, bere betiko lana normaltasun osoz egin ahal dezan bitartekoak ipiniko ditugula, edo
- Itxiera bidegabe hau iraukor egiten baldin badute, euskarazko egunkari berri baten sorrera bultzatuko dugula.
- Erabaki honek konpromezu mota desberdinak eskatzen ditu, eta ekonomiaren ikuspegitik, UDALBILTZA®k Euskal Udalen eskutik ekimen desberdinak bultzatuko ditu.

UDALBILTZA®ren ordezkari bat *EUSKALDUNON EGUNKARIA*ren arduradunekin bildu zen egoera aztertzeko. Bileraren ondorioz, UDALBILTZA®k erabaki zuen harpidetza kanpaina bat bultzatzea Euskal Herriko alkate eta zinegotzi artean erabaki zuen.

ENGAGEMENT POUR LA CREATION D'UN JOURNAL EN □ LANGUE BASQUE

Attaché à la défense des droits des personnes, UDALBILTZA®, dénonce l'atteinte aux libertés d'expression et d'information ainsi que l'attaque contre la langue et la culture basque que constitue la fermeture du journal *EUSKALDUNON EGUNKARIA*.

Ces actions ont une intention politique déterminée. Par conséquent, UDALBILTZA® réitère son engagement à travailler en faveur de la paix, de la liberté et du développement du Peuple Basque, sur la base du respect des Droits de l'Homme, en s'opposant à la torture et aux mauvais traitements, et en défendant les notions de dialogue et négociation.

Ainsi, UDALBILTZA® contribuera à la création d'un nouveau journal en basque, dans le cas où la fermeture injuste d'*EUSKALDUNON EGUNKARIA* serait maintenue.

Llamamiento de UDALBILTZA® a los electos municipales.

UDALBILTZA®ren deia Udal hautetsiei.

Appel d'UDALBILTZA® aux élus locaux.

Egunkaria aurrera!!! Euskararen Alde

HARPIDEDUN
EGIN ZAITEZ

SUSCRÍBETE

SOUSCRIPTION

Deitu: 943 30 35 55 / 943 30 35 54 Idatzi: aranegun@yahoo.es / Martin Ugalde Kultur Pakea / Eraikin Zuria · 20140 Andoain